



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko urriaren 22a

120. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E S A I L A:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Eusko Jaurlaritzari proposa diezaion aldi berean eta adostasunez jardutea Nafarroako Hitzarmen Ekonomikoaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Itun Ekonomikoaren negoziatioari dagokienez. Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak aurkeztu du (3. or.).

#### F S A I L A:

##### **Galderak:**

- Galdera, Nafarroako Gobernuak oinarrizko gizarte zerbitzuen arloan jada jasotako gastuaren ordainketa-  
ren bigarren eta hirugarren zatiak blokeatzeari buruzkoa, María Victoria Arraiza Zorzano andreak egina  
(5. or.).
- Galdera, jakitekoa Nafarroako Gobernuak asmorik ote duen Lan Eskaintza Publikoa egiteko hezkuntza eta  
osasun arloko langileen gutxienez ehuneko 30 ordeztan dela bermatzearen, Marisa De Simón Caballero  
andreak egina (6. or.).
- Galdera, jakitekoa zein den Nafarroako Gobernuaren jarrera UPNk Diputatuaren Kongresuan aurkezturi-  
ko ekimenaren inguruan, zeinaren bidez legez behartzen baita haurdunaldia eten nahi duten emakumeak  
fetoaren ekografia ikus dezaten, Bakartxo Ruiz Jaso andreak egina (7. or.).
- Galdera, San Juan de Dios Ospitalearekiko ituna oraindik sinatu ez izanaren arrazoei buruzkoa, Asun Fer-  
nández de Garaialde y Lazkano andreak egina (7. or.).
- Galdera, Etxauriko taxi zerbitzuan eginiko aldaketei eta aldaketa horiek Iruñerrian duten eraginari buruz-  
koa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, jakitekoa Nafarroako Gobernuak noiz eskatuko duen Euromontana Sarean sartzea. Foru Diputa-  
zioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, hasiera batean Alloko zahar etxea izan behar zuen eta duela bost urte amaitu zen eraikinari  
buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, Nafarroako Administrazioaren asmoari buruzkoa, “El Vergel” eta Santo Domingo zahar etxeeta-  
ko eta San José zentroko plantillak indartzeko langileak kontratatzeari dagokionez. Foru Diputazioaren  
erantzuna (12. or.).

- Galdera, 2008tik 2012ra Gizarteratze errenta emateko prozesuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, 2012ko zerga-presioaren adierazleari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, Audenasa sozietatearen akzioen erosketa dela-eta entitate desberdinekin hartutako zorrari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak uztailaren 12ko 9/2013 Errege Dekretuaren gainean duen iritziari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobrenuko Departamentuetako aurrekontuaren 2013ko abenduaren 31ko betetze-aurreikuspenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, Nafarroako Kirol Justiziarako Batzordearen jarduketei buruzkoa, CD Cabanillas taldeak aurkeztutako salaketa dela-eta. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, uztailaren 12ko 9/2013 Errege Dekretuak hurrengo bost urteetako diru-bilketan izanen duen eraginari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Eusko Jaurlaritzari proposa diezaion aldi berean eta adostasunez jardutea Nafarroako Hitzarmen Ekonomikoaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Itun Ekonomikoaren negoziazioari dagokienez.**

*PATXI ZABALETA ZABALETA JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Patxi Zabaleta Zabaleta jaunak aurkezturiko eta jabelduratik eratorritako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Eusko Jaurlaritzari proposa diezaion aldi berean eta adostasunez jardutea Nafarroako Hitzarmen Ekonomikoaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Itun Ekonomikoaren negoziazioari dagokienez.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Erabakitzea mozioa hurrengo Osoko Bilkuran izapidetuko dela eta zuzenketak aurkezteko epea bukatuko dela eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2013ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**MOZIOAREN TESTUA**

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Patxi Zabaleta Zabaletak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, 2013ko urriaren 10eko Osoko Bilkuran aurkeztutako jabelduratik heldu den ondoko mozioa aurkeztu du, hurrengo Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko:

Ukaezina da Euskal Autonomia Erkidegoak eta Nafarroak Estatuarekin ituna eta hitzarmena elkarrekin eta aldi berean negoziatzeak sinergiak eragingen lituzkeela une larri honetan.

Arduragabekeria politiko oso larria da ez ohar-tzea eta ez aintzat hartzea itunaren eta hi-

tzarmenaren aurkako eraso bateratua eta aldiberekoa baldin bada, bateratua eta aldiberekoa izan behar duela orobat horien defentsak, zorrotasunez eta eraginkortasunez eginen bada.

Arduragabekeria politiko larria da, halaber, aintzat ez hartzea berberak direla negoziazio-gaiak, zeinen artean aipagarriak baitira ondokoak:

a) Bai itunak, bai hitzarmenak, loterien fiskalitatea berritzeari buruzko harremanak arautu beharko dituzte arlo fiskalean.

b) Bai itunak, bai hitzarmenak, on-line jokoen arloko harreman fiskalak berriro behar dituzte.

c) Bai itunak, bai hitzarmenak, ekoizpen elektrikoaren arloko harreman fiskalak ere ezarri behar dituzte.

d) Bai itunak, bai hitzarmenak, finantza-transakzioentzako zergapetzeak edo/eta Tobin tasa izenekoa ezarri eta egokitu behar dituzte.

e) Bai itunean, bai hitzarmenean, BEZa nahiz zeharkako beste zerga batzuk doitzeko irizpideak berrantolatu behar dira, bereziki diru-bilketa horretan esportazioek-eta duten eraginari dagokionez.

f) Ikatzetik heldu den energia.

g) Nafarroak Estuari egin beharreko ekarpena eta Euskal Autonomia Erkidegoaren kupoa zehaztea.

Arlo horietan guztietan, beste askotan bezala, inork ere ezin du pentsatu ezberdinak izan daitezkeela EA Eren eta Nafarroaren negoziazioei emandako konponbideak. Hortaz, argi dago lehendabiziko negoziazioak bestea baldintzatuko duela, beti izan da-eta horrela.

Gainera, behar bezala arautu gabe daude Nafarroaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren

arteko aldebiko harreman fiskalak. Hori, jakina, bideragarriagoa da aldebiko harreman oso bartzuen testuinguruan; alegia, alde batean Estatua eta bestean itunaren eta hitzarmenaren eskubide historikoen titularrak dauden testuinguruan.

Bestalde, hitzarmenaren emaitzaren mende egonen da neurri handi batean erreforma fiskal integrala; eta iruzur fiskalaren aurkako planek ere, ikuskera integral batean sarturik egoteko, ikuspegi fiskal oso bat behar dute, Nafarroako zergadunen atzerriko ondasunen gaineko ikerketak frogatzen duenez. .

Hori dela-eta, parlamentu-talde honek ondoko erabaki proposamena aurkeztu du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Eusko Jaurlaritzari proposa diezaion aldi berean eta adostasunez jardutea Nafarroako Hitzarmen Ekonomikoaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Itun Ekonomikoaren negoziazioari dagokienez.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Estatuarekin Nafarroaren Hi-

tzarmen Ekonomikoa negoziatzean mahai gainean jar dezan Nafarroa Ecofinen egotearen eskakizuna, eskubide historiko preskribaezina baita.

3. Nafarroako Parlamentuak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio, Nafarroako Hitzarmen Ekonomikoaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Itun Ekonomikoaren negoziazioari dagokienez, aldi berean eta adostasunez jardutearen alde ager dadin.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio Hitzarmen Ekonomikoaren negoziazioari begirako helburuei eta plataformari buruzko informazio osoa eman dezan, negoziazioari ekin aurretik.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du iruzur fiskalaren aurkako etorkizuneko plana aurkez dezan Parlamentuan, une honetan garatzen bukatzen ari den iruzur fiskalaren aurkako planaren balantze arrazoitu eta kuantifikatuarekin batera.

Iruñean, 2013ko urriaren 14an

Eleduna: Patxi Zabaleta Zabaleta

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, Nafarroako Gobernuak oinarrizko gizarte zerbitzuen arloan jada jasotako gastuaren ordainketaren bigarren eta hirugarren zatiak blokeatzeari buruzkoa.**

*MARÍA VICTORIA ARRAIZA ZORZANO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Victoria Arraiza Zorzano andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako Gobernuak oinarrizko gizarte zerbitzuen arloan jada jasotako gastuaren ordainketaren bigarren eta hirugarren zatiak blokeatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

**GALDERAREN TESTUA**

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako María Victoria Arraizak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaur-

kotasun handiko ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Gizarte Politiketako kontseilariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Zenbait udali telefono bidez jakinarazi zaie blokeatu egin zaizkiela Nafarroako Gobernuak oinarrizko gizarte zerbitzuen arloan jada esleitutako gastuaren bigarren eta hirugarren ordainketak. Informazio hori jaso dugunez, eta zer gertatzen ari den jakiteko asmoz, ahozko galdera hau aurkeztu dugu:

- Egia al da oinarrizko gizarte zerbitzuen arloan jada esleitutako gastuaren bigarren eta hirugarren ordainketak blokeatu direla?

- Informazio hori zuzena baldin bada, Nafarroako Gobernuak zer neurri hartuko ditu udalek jada emandako zerbitzu hain beharrezko horren zenbateko osoa ordaintzeko?

Iruñean, 2013ko urriaren 17an

Foru parlamentaria: María Victoria Arraiza

## **Galdera, jakitekoa Nafarroako Gobernuak asmorik ote duen Lan Eskaintza Publikoa egiteko hezkuntza eta osasun arloko langileen gutxienez ehuneko 30 ordezen dela bermatzearen.**

*MARISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Marisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakitekoa Nafarroako Gobernuak asmorik ote duen Lan Eskaintza Publikoa egiteko hezkuntza eta osasun arloko langileen gutxienez ehuneko 30 ordezen dela bermatzearen.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Marisa De Simón Caballero andreak gaurkotasun handiko ondoko galdera egin du, Nafarroako Gobernuak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Defizit publikoa zuzentzeko aurrekontu, tributu eta finantza arloko presako neurriei buruzko abenduaren 30eko 20/2011 Errege Lege-dekretuak

ondokoa dio bosgarren idatz-zatian: "Betiere, kasuko gastuen aurrekontuko 1. kapituluko aurrekontu-baliabideak errespetatuz, aurreko idatz-zatietan ezarritako muga ez zaie aplikatuko ondoko sektore eta administrazioei, zeinek ehuneko 10eko ordeze-tasa izanzen baitute:

A. Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa garatzeko hezkuntza-eskumenak dituzten administrazio publikoei, irakasle funtzionarioen kidegoetan sartzeko lanpostu kopurua zehazteari dagokionez.

B. Osasun Sistema Nazionaleko ospitaleetako eta osasun-etxeetako lanpostuen gaineko osasun arloko eskumenak dituzten administrazio publikoak".

Azken hiru urteotan Nafarroako Gobernuak ez dituen lanpostu hutsak bete, ondokoa jakin nahi dugu:

Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik Lan Eskaintza Publikoa egiteko hezkuntza eta osasun arloko langileen gutxienez ehuneko 30 ordezen dela bermatzearen, halako moduan non ez diren okertuko, okertzen ari diren bezala, hezkuntzaren eta osasun-laguntzaren zerbitzu publikoak?

Iruñean, 2013ko urriaren 18an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

## **Galdera, jakitekoa zein den Nafarroako Gobernuaren jarrera UPNk Diputatuaren Kongresuan aurkezturiko ekimenaren inguruan, zeinaren bidez legez behartzen baita haurdunaldia eten nahi duten emakumeak fetoaren ekografia ikus dezaten.**

*BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakitekoa zein den Nafarroako Gobernuaren jarrera UPNk Diputatuaren Kongresuan aurkezturiko ekimenaren inguruan, zeinaren bidez legez behartzen baita haurdunaldia eten nahi duten emakumeak fetoaren ekografia ikus dezaten.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Bakartxo Ruiz Jasok, Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko kideak, Legebiltzarreko Erregelamenduak esaten duenari jarraikiz, ondoko gaurkotasun handiko galdera egin nahi dio Nafarroako Gobernuko Presidente Yolanda Barcina Angulo andreaki, datorren urriaren 24ko Osoko Bilkuran erantzun dezan:

UPNk abian jarri du Madrilgo Kongresuan haurdunaldia eten nahi duen emakumea fetoaren ekografia ikustera legez behartzeko ekimena.

Honen inguruan zeuk aurreko astean esandakoa berresten duzu? Hori al da Nafar Gobernuaren iritzia? Nola arrazoitzen duzue iritzi hori?

Iruñean, 2013ko urriaren 21ean

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jasok

## **Galdera, San Juan de Dios Ospitalearekiko ituna oraindik sinatu ez izanaren arrazoei buruzkoa.**

*ASUN FERNÁNDEZ DE GARAIALDE Y LAZKANO ANDREAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2013ko urriaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, San Juan de Dios Ospitalearekiko ituna oraindik sinatu ez izanaren arrazoei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2013ko urriaren 21ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **GALDERAREN TESTUA**

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Asun Fernández de Garaialdek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuarekin bat, gaurkotasun handiko galdera hau aurkeztu du, urriaren 24ko Osoko Bilkurarako, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilari Vera andreak ahoz erantzun dezan:

Zergatik ez da sinatu oraindik San Juan de Dios Ospitalearekiko ituna? Noiz eta zer prezioan sinatuko dela uste duzue?

Iruñean, 2013ko urriaren 21ean

Foru parlamentaria: Asun Fernández de Garaialde y Lazkano

## **Galdera, Etxauriko taxi zerbitzuan eginiko aldaketei eta aldaketa horiek Iruñerrian duten eraginari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Eloy Villanueva Cruz jaunak egindako galderaren erantzuna, Etxauriko taxi zerbitzuan eginiko aldaketei eta aldaketa horiek Iruñerrian duten eraginari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko irailaren 9ko 96. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Eloy Villanueva Cruz jaunak informazioa eskatu du Etxauriko taxi zerbitzuaren egoerari buruz eta Iruñerrian daukan eraginari buruz (PES-105/13). Hauxe da Sustapeneko Departamentuaren informazioa:

#### 1. Hitzarmenaren edukia eta norainokoa.

Etxauriko Udalak eta Iruñerriko Mankomunitateak adostu dute Iruñerriko baterako zerbitzurako eremuko taxi lizentzietako titularrek irteera edo helmuga Etxauriko udalerrian duten zerbitzuak egin ahalko dituztela. Etxauriko lizentziaren titularrak irteera edo helmuga Iruñerrian duten zerbitzuak egin ahal izanzen ditu, eta ibilgailu horrek Etxauriko ordenantzan ezarritako ezaugarriak eduki beharko ditu edo, halakorik ez bada, Taxiari buruzko Foru Legean ezarritakoak. Inoiz ere ezin izanzen dira Mankomunitatearen bereizgarriak erabili baterako zerbitzurako eremuko taxi zerbitzuari atxikitako ibilgailuetan.

Indarraldiari dagokionez, hitzarmenak dio indarrean jarraituko duela "Iruñerriko baterako zerbitzurako eremuaren esparrua behin betiko erabakitzen den arte".

#### 2. Ukitutako entitateak.

Etxauriko Udala eta Iruñerriko Mankomunitatea.

#### 3. Beste lizentzia bat sortzeari buruz.

Nafarroako Gobernuaren ikuspuntutik, hitzarmena ukitutako toki entitateen arteko lankidetzaz neurri baten modukoa da, entitate horiek beren eskumenez baliatuz hartua eta Etxaurin dagoen lizentziaren iraunkortasuna bermatzera zuzendua.

Horrela interpretatzen du Nafarroako Gobernuak "udal barrutian taxi zerbitzua koordinatu eta indartzea" esaldia, Etxaurik hitzarmenaren zioen azalpenean erabiltzen duena. Ez da aipatzen eskaria ez denik behar bezala betetzen, baizik eta zerbitzua eskuratzeko aukerak hobetu nahi direla.

Beste lizentzia bat sortzeko aukerari dagokionez, alde aurreko honako azalpen bat eman beharra dago. Taxiari buruzko uztailaren 6ko 9/2005 Foru Legeko 4. artikulua ezartzen du hiriko taxi zerbitzuetarako gaikuntza-tituluak lizentziak direla eta kasuan kasuko udalak ematen dituela. Halaber, ezartzen du hiriarteko taxi zerbitzuetarako gaikuntza-tituluak baimenak direla eta halakoak Sustapeneko Departamentuak ematen dituela. Azkenik, ezartzen du ezen, orokorrean, taxi zerbitzuak emateko lizentziak eta baimenak lotuta egonen direla eta biak modu koordinatuan emanen direla.

Lege horretako 9. artikulua ezartzen du lurralde-esparru jakin batean indarra duen taxi lizentzien aurkibide orokor indarduna aldatzeko prozedura. Prozedura hori hasiko da mugigarritasunari buruzko azterlan batekin eta azterlan sozio-ekonomiko batekin, zeinak irizpide jakin batzuk hartu beharko baititu kontuan. Behin azterlan hori eginda, txostena eskatuko zaio Nafarroako Taxien Kontseiluari. Ondoren, kasuko udalak espediente Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako dagokion departamentuari aurkeztuko dio, eskatze aldera bere iritzia eman dezala kasuko baimena emateak edo ukatzeak ekarriko duen aldaketari buruz.

Aurrez azalduetakoa ikusita, jakitera ematen da departamentu honek ez duela jasota aztertu denik lizentzia berri baten sorrera, ez eta prozedura horri hasiera emateko beharrezkoak diren mugigarritasunari buruzko azterlana edo azterlan sozio-ekonomikoa egin direnik ere.

#### 4. Eskariari erantzuteari dagokionez.

Aurreko puntuaren hasieran erantzun dugun bezala, Etxauriko lizentziaren inguruan egin diren jarduketek arrazoia –jarduketek aipatutako hitzarmena egitea ekarri dute– ez da izan eskariari ez zitzaiola erantzuten, baizik eta Etxaurik interesa zuela "zerbitzua mankomunatzeko", horrek herritarrari ustez ekarriko zizkion onurengatik. Nolanahi ere, kasuko espedientearen ez dago jasota egiaztagiri edo azterlanik eskariari erantzunik ematen ez zaiola ziurtatzen dutenik.



#### 5. Egungo zerbitzua emateari buruz.

Adierazi dugun bezala, hitzarmeneko testuaren azalpen-atalaren arabera, Etxauriko Udalak adierazten du taxi zerbitzua bere udal barrutian koordinatzeko eta indartzeko beharra duela, zeren eta lizentzia bakarra egoteak mugatzen baitu Iruñerriko baterako zerbitzurako eremuak eskaintzen duen zerbitzuaz baliatzeko aukera izatea. Ez dago jasota udal horrek aipatutako hitzarmenean adierazitako beharren arazoia denik titularrak berak zerbitzua ez ematea.

#### 6. Etxauriko lizentziak ordenantza betetzeari dagokionez.

Etxauriko Udalak, 2002ko maiatzaren 2an egindako bilkuran, erabaki zuen behin betiko onespina ematea Etxauriko auto-taxien zerbitzu publikoaren erregelamenduari (2002ko irailaren 4ko 107. Nafarroako Aldizkari Ofiziala). Erregelamendu horrek taxi-zerbitzuaren erregulazioa ezartzen du, dagokion eskumen-esparruan. Ez dago jasota Etxauriko Udalak edo Sustapeneko Departamentuko ikuskapen zerbitzuek zehapenik ezarri izana. Neurriak hartzeari dagokionez, Foruzaingo eta Guardia Zibileko agenteek zaintzen dute taxiari buruzko araudia bideetan bete dadila. Gainera, departamentuaren garraioen ikuskapen planak jasotzen du taxi-zerbitzua kontrolatzeari buruzko berariazko kanpaina bat egitea.

#### 7. Bizilagunek zerbitzu faltarengatik salaketak egiteari buruz.

Ez dago jasota Etxauriko bizilagunek salaketarik egin dutenik taxi zerbitzua falta izateari buruz.

#### 8. Hitzarmenak titularrengan izanzen duen eraginari buruz. Titularren onurak eta elkarrekotasuna.

Une hauetan Iruñerriko baterako zerbitzurako eremuan 313 lizentzia daude, 350.000 biztanle baino gehiagoko populazioari zerbitzua emateko; horrenbestez, 1.100 biztanle bakoitzeko lizentzia bat dago, gutxi gorabehera. Etxauriko lizentziak herriko biztanleei ematen die zerbitzua. 585 biztanle inguru dira.

Horrenbestez, kopuru horiek eta hitzarmenaren azalpen-ataleko gogoetak ikusita, ezin dira zehaztu elkarrekotasuna eta taxi-lizentzien titular bakoitzarentzat ekarriko duen onura objektiboa ebaluatuko duten parametroak.

#### 9. Nafarroako Gobernuaren araudiari eta eskumenei egokitzea.

Hitzarmena izenpetu da horretarako ezarritako dauden lege-prozeduren arabera eta Taxiari buruzko Foru Legeko 48. artikulua aplikatuz. Hitzarmena

indarrean dago izenpetu zen momentutik. Horrenbestez, ez dago formazko erreparorik hura indarreko araudiari egokitzeari dagokionez.

Foru Komunitateko Administrazioeko eskumenei egokitzeari dagokionez, Taxiari buruzko 9/2005 Foru Legean ezarritakoaren indarrez, administrazio horrek honako eskumenen titularra da:

1. Hiriarteko zerbitzuak emateko baimenak eman, aldatu eta azkentzea.

2. Hiriarteko zerbitzuei aplikatzekoa zaien tarifa-araubidea onestea.

3. Hiriarteko zerbitzuak zaintzea eta ikuskatzea.

4. Hiriarteko taxi zerbitzuen emateagatik zehapenak ezartzea.

Gure ustez, Etxauriko Udalak eta Iruñerriko Mankomunitateak izenpetutako hitzarmenak ez ditu urratzen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eskumenak.

#### 10. Etxauriko taxi zerbitzuaren izaera.

Taxiari buruzko Foru Legeko 2. artikulua taxien hiri barneko eta hiriarteko zerbitzuen definizioa ematen du. Lehenengoak dira udalerririk gabeko udal barrutian guztiz gertatzen direnak edo baterako zerbitzurako eremuen lurralde-esparruan guztiz ematen direnak.

Etxauriko Udalaren eta Iruñerriko Mankomunitatearen arteko hitzarmeneko 4. atalak ezartzen du tarifak zerbitzuen lurralde-esparruaren arabera kobratuko direla, eta aukera izanzen dela prezioa hitzartzeko, Taxiari buruzko Foru Legean ezarritakoari jarraituz.

Horrenbestez, jotzen da hitzarmenak ezin duela aldaketarik ezarri –izan ere, ez du ezartzen taxi zerbitzuak hiri barnekoak edo hiriartekoak izateari dagokionez. Esate baterako, Etxauriren eta Oltza Zendearen arteko zerbitzu bat hiriartekoa izanzen da eta Iruñearen eta Olza Zendearen arteko zerbitzu bat, berriz, hiri barnekoa izanzen da, foru lege horretan ezarritakoaren arabera.

#### 11. Zerbitzuen hasiera eta amaiera direla eta izandako aldaketak.

Taxiari buruzko uztailaren 6ko 9/2005 Foru Legea aldatzen duen uztailaren 2ko 22/2013 Foru Legeak 46. artikulua aldatu zuen; haren bidez, aukera bat gehitzen da hiriarteko taxi zerbitzuak hasteko taxi-lizentzia eman zenekoaz besteko udalerririk gabeko udal barrutian edo eremuan bukatzen badira eta ibilbide-liburua behar bezala beterik dagoela zirkulatzen bada; izan ere, bertan

egiaztatuko da kontratazioa aurretiaz egina dela, bai eta zerbitzuaren helmuga zein den ere.

Horrenbestez, egiazki, Etxauriren eta Iruñerriko baterako zerbitzurako eremuaren arteko hiriarteko zerbitzuei dagokienez, aurrekoa aldatzen duen foru legeak indarra hartzen duen unetik, irteera E-

txaurin duten eta helmuga baterako zerbitzurako eremuan duten zerbitzuak egin ahalko dira, eta alderantziz.

Iruñean, 2013ko irailaren 23an

Sustapeneko kontseilaria: Luis Zarraluqui Ortigosa

---

## **Galdera, jakitekoa Nafarroako Gobernuak noiz eskatuko duen Euromontana Sarean sartzea.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Manu Ayerdi Olaizola jaunak egindako galderaren erantzuna, jakitekoa Nafarroako Gobernuak noiz eskatuko duen Euromontana Sarean sartzea, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko irailaren 9ko 96. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Euromontana Sareari buruz (8-13-/PES-00106). Hauxe erantzun dio Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko kontseilariak:

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Departamentuak hartu-emanak

izan ditu Euromontanaren lehendakaritzarekin, haren jarduerak eta jardute-esparrua ezagutze aldera.

Une honetan, batetik departamentuak berezko dituen nekazaritzaren, landa garapenaren eta ingurumenaren arloko eskumenen ikuspuntutik, eta, bestetik, beste esparruekin lotutako eskumenen ikuspuntutik, baloratzen ari da nolako onurak eta sinergiak ekar litzakeen Euromontana Sareko kideak izateak, bai eta kide izate horrek ekarriko litzakeen betebeharrak ere.

Aurreikusita dago hemendik gutxira sare horretan sartzeko eskaria egitea.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko irailaren 30ean

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko kontseilaria: José Javier Esparza Abaurrea

## **Galdera, hasiera batean Alloko zahar etxea izan behar zuen eta duela bost urte amaitu zen eraikinari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bikendi Barea Aiestaran jaunak egindako galderaren erantzuna, hasiera batean Alloko zahar etxea izan behar zuen eta duela bost urte amaitu zen eraikinari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko irailaren 9ko 96. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko urriaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Bikendi Barea Aiestaran jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du hasiera batean Alloko zahar-etxea hartzeko egin zen eta duela bost urtetik amaituta dagoen eraikina dela-eta Gobernuak dauzkan asmo edo proiektuei buruz (8-13/PES-00113). Hauxe erantzun dio Gizarte Politiketako kontseilariak:

Alloko Udalak 2010ean erabaki zuen higiezia doan lagatzea Nafarroako Mendekotasunaren Agentziari, honako baldintza honekin:

10 urtez adineko pertsonentzako laguntza-zentroa izatea, doako lagapena egiteko ebazpenaren datatik, hau da, 2010eko azaroaren 24tik, kontatzen hasita. 10 urte horietatik bi urte erabiliko dira zentroa ekipatzeko eta zortzi urte, berriz, zentroak funtzionatzeko. Zentroak hirugarren adinekoentzako laguntza-zerbitzuekin parekagarriak diren zerbitzuak emanen ditu, dela eguneko zentro gisa, dela egoitza gisa, laguntza arrunterako nahiz laguntza espezializaturako.

Egoitza amaituta dago, baina zerbitzu orokorretan (sukaldea, xahutegia, komunak, gimnasioa...) ekipamendua jarri gabe dago; bestalde, altzaririk batere ez du.

Aipatutako denboran, departamentuak baloratu du zein izanen litzatekeen zerbitzua abian jartzeko modurik onena, abian jartze horretarako behar den inbertsioa justifikatuko duten premia errealk artatzeari begira eta inbertsio hori denboran iraunkorra izateari begira.

Laguntza-premien profil desberdinak eta eremuko premiak baloratu ondoren, erabaki da

2014rako aurrekontu-proiektuan eraikinaren ekipamendurako eta mantentzerako aurrekontua jartzea, egoitza abian jartze aldera, betiere honako ezaugarriekin:

15 lagunentzako egoitza-zerbitzua sortzen da, 65 urtetik gorako pertsonak artatzeko, haien errehabilitazioa lortzeko eta autonomia pertsonalari eusteko helburuarekin.

Honakoa izanen da erabiltzaileen profila: mendekotasunik ez duten pertsonak izanen dira, edo mendekotasun soziala dutenak, edo mendekotasun moderatua izan eta mendekotasun soziala ere badutenak; horrenbestez, nolabaiteko autonomia pertsonala duten erabiltzaileak izanen dira.

Estatuko Autonomia pertsonala sustatzeko eta mendetasunari aurrea hartzeko Legeak bermatzen ez duen laguntza behar duten pertsonak diren arren, haientzako laguntza Nafarroako Gizarte Zerbitzuen Zorroan jasota dago, mendekotasun sozialaren figuraren eta araudiaren bitartez.

Honako programak egitea planteatzen da:

Fisioterapia.

Lanaren bidezko terapia.

Aisialdiko programa (tailerrak).

Erkidegoan integratzeko programak.

Desintoxikazio programak (alkoholaren kontsumoa).

Buruko nahaste batzuetarako programak.

Horrenbestez, 2014ko aurrekontu-proiektuan honakoak sartuko dira: sukaldearen, xahutegiaren, komunen, gimnasioaren, logelen eta erabilera komunetarako esparruen ekipamendu osoa, bai eta mantentze-gastuak, elikadura-gastuak, zerbitzu-gastuak eta kontsumo-gastuak ere. Helburua da egoitza 2014an irekitzea.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko irailaren 30ean

Gizarte Politiketako kontseilaria: Íñigo Alli Martínez

## **Galdera, Nafarroako Administrazioaren asmoari buruzkoa, “El Vergel” eta Santo Domingo zahar etxeetako eta San José zentroko plantillak indartzeko langileak kontratatzeari dagokionez.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bikendi Barea Aiestaran jaunak egindako galderaren erantzuna, Nafarroako Administrazioaren asmoari buruzkoa, “El Vergel” eta Santo Domingo zahar etxeetako eta San José zentroko plantillak indartzeko langileak kontratatzeari dagokionez, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko irailaren 9ko 96. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko urriaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Bikendi Barea Aiestaran jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du "El Vergel" eta Santo Domingo zahar etxeetako eta San José zentroko plantillak indartzeko langileak kontratatzeari dagokionez Nafarroako Administrazioak duen asmoari buruz (8-13/PES-00110). Hauxe erantzun dio Gizarte Politiketako kontseilariak:

Une honetan, Administrazioak ez du, epe laburrean, aipatutako zentroetarako langileak kontratatzeiko asmorik.

Zentro berekietako plantillei buruz egindako azterlanak islatzen du erabiltzaileei arreta bikaina ematen dien plantilla bat badagoela, eta plantilla hori handiagoa dela, egoiliarren kopuruaren proportzioan, Nafarroako gainerako egoitza itunduetakoa baino, batez ere zaintzaileen orduei eta zerbitzu orokorrei dagokionez.

PANaren jarduera antolamenduzko hobekuntzak egitera bideratuta dago, egitekoen banaketa optimizatzeko aldera, betiere zerbitzuaren kalitateari utsita.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko irailaren 30ean

Gizarte Politiketako kontseilaria: Íñigo Alli Martínez

## **Galdera, 2008tik 2012ra Gizarteratze errenta emateko prozesuari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin txema Mauleón Echeverría jaunak egindako galderaren erantzuna, 2008tik 2012ra Gizarteratze errenta emateko prozesuari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko irailaren 16ko 101. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko urriaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari txema Mauleón Echeverría jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du 2008tik 2012ra gizarteratze errenta emateko prozesuari buruz (8-13/PES-00123). Hauxe erantzun dio Gizarte Politiketako kontseilariak:

1. 2008tik 2012ra gizarteratze errenta emateko prozesuan, iruzur egiten zuten zenbat pertsona detektatu dira emandako errenta guztiak kontuan hartuta? Urteotako datuak eskatzen dira: 2008, 2009, 2010, 2011 eta 2012koak.

Ez zaigu egokia iruditzen "iruzur" terminoa erabiltzea gizarteratze errenta edo lehenago oinarritzko errenta kentzen zaien pertsonen buruz hitz egiterakoan; kentze hori egiten da egiaztatzen denean, behin errenta eman eta ondoren, pertsona horiek ez dituztela betetzen hura jasotzeko eskubidea izateko behar diren baldintzak. Egoera horri "iruzur" deitzeak berarekin dakar kontzienteki juzgatzea engainu bat egon dela eskubide batzuk edo onura batzuk lortzeko. Ez dagokigu horrelako kalifikazio bat eta, horrenbestez, ez ditugu inoiz halakoak aipatuko "iruzur egoeran" dauden pertsonen gisara.

Bestalde, argitu beharra dago ezen, laguntza kentzen deneko kasuen barruan, batzuk automatikoak direla; esate baterako, lanpostu batera sartzeko kasua edo etorkizunean ikuskapena eginen den kasuak.

Azkenik, azaldu beharra dago errenta gutxi kendu direla, zeren eta emateko prozesua oso xehea baita gizarteratze-errenta lortzeko baldintzen betetzea egiaztatzeari dagokionean: espediente gehitutako dokumentazioa aztertzen da; argitasunak eskatzen zaizkie, kasua bada, oinarritzko gizarte zerbitzuari edo zuzenean interesdunari; informazio osagarria eskatzen da informazioa falta den kasuetan; dokumentazioa eskatzen zaie Ogasunari, gobernu-ordezkaritzari, oinarritzko gizarte zerbitzuei eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuari –horietako bakoitzerako prozedura bat dago ezarrita, eta beharrezkoa denean kasuko helbidera bisita egiten da, oinarritzko gizarte zerbitzuetako gizarte langileek ere esku hartuta–. Hori dela eta, oso gutxitan gertatzen da geroztik egiaztatzea baldintzaren bat ez dela bete eta, horrenbestez, prestazioa kendu behar izatea.

Hori guztia dela eta, galderarekin bilatzen denera hurbiltzeko, bi adierazle erabiliko ditugu: Lehenengoa behin emanda baja ematen zaien gizarteratze-errenten kopuruari buruzkoa da, eta bigarrena, berriz, errenta hori ezesteko arrazoiak adierazlea izanen da; izan ere, biek argitu egiten dute nolako arrazoiak izan dituen Administrazioak ondorioztatzeko bermatuta dagoen prestazio hori lortzeko baldintzak ez direla betetzen.

Aurrez adierazi dugun bezala, bi adierazle horien kasuan ez da esan nahi iruzurrezko jokabidea dagoenik, askotan gertatzen baita ez dela ongi ezagutzen zein diren errenta jasotzeko baldintzak.

a) Gizareratze-errentaren edo oinarrizko errentaren (bere garaian) bajak edo kentzeak:

ARRAZOIA	2008	2009	2010	2011	2012	2013
Lanbide-birprestakuntzako programan (PI) sartzea					2	
Langabeziarako eta lan munduan sartzeko aldi baterako babes programan (PRODI) sartzea			7			
Barnetegi araubideko baliabide batean sartzea			1		5	3
Ordainketa gaurkotzea	27	13	2	3		
Borondatezko baja	1	1			6	12
Akats administratiboa	1	1	2	4	1	3
Heriotza	5	8	4	2	7	2
Epea amaitzea	19	26	173	23	37	18
Norberaren borondatez lanean baja ematea					1	1
Betebehar edo baldintzetako batzuk ez betetzea					2	
Lanean hastea	37	87	85	49	30	85
Lanean hastea (krisiaren aurkako neurriak)		86	9			
Gizarte enplegu babestuan hastea (behin betikoa)	25	25	72	50	34	45
Gizarte enplegu babestuan hastea (partziala)			2	1	1	1
Interes sozialeko enplegu komunitarioan hastea (behin betikoa)			78	1	2	1
Interes sozialeko enplegu komunitarioan hastea (partziala)						1
Kontratazioari buruzko Foru Agindua dela-eta lanean hastea (partziala)					7	11
Kontratazioari buruzko Foru Agindua dela-eta lanean hastea (behin betikoa)					134	213
Gizareratze akordioa ez betetzea	2	19	7	1		2
Bizikidetasun egoera aldatzea	9	6	8	8	3	3
Egoera ekonomikoa aldatzea	45	22	26	26	24	41
Familia unitatean izandako aldaketak ez jakinaraztea ezarritako epean			8	10	4	6
Gizareratze eta laneratze akordioa ez betetzea	36	177	50	1		
Datuak ezkutatzea edo informazio okerra ematea	4	11	8	3	6	7
Epaitegiaren ordainketa partziala		1				
Errenta jasotzeko exijitzen den betekizunen bat galtzea					4	4
Lurraldean legezko bizitokia izateko betekizuna galtzea					1	
Lan eskaintza bati uko egitea		2	14	2	5	2
Zehaztugabea	4	4	3		3	
Zuhurtziako indargabetzea				1	1	2
Beste erkidego batera aldatzea	4	10	9	8	5	2
Orokorra, guztira	219	499	568	193	325	465

Bi urteetako bakoitzaren espedienteen kopuruari dagokienez:

Urtea	Zenbat espediente
2008	5.799
2009	10.772
2010	12.728
2011	15.191
2012	12.257

2. 2008tik gaurdaino, zenbat kide ditu gizarteratze errentari buruzko espedienteak aztertzen dituen zure departamentuko Ikuskapen Atalak?

2008tik Ikuskapen Atala osatzen duten pertsonak.-

Urtea	2008	2009	2010	2011	2012	2013
Atalburua	1	0	1	1	1	1
Ikuskatzaileak	7	6	4	2	3	3

Ikuskapen lana urtero onesten den foru aginduaren bitartez ezarritako Ikuskapen Planean zehazten da, eta ikuskatzaileek ez dute beren denbora guztia ematen gizarteratze-errentaren espedienteak aztertzen.

Plan horretan jasotzen dira, besteak beste, kasuko urterako helburuak eta jarduketa-ildoak. Gizarte zerbitzuetan dauden zerbitzuen aniztasuna dela eta, denboran mantendu den jarduketa-ildo bat –egoitza-zerbitzuen ikuskapena– oinarri hartuta, urtero ikuskapen-ildo desberdinetan jartzen da azpimarra.

Galderaren xede den gizarteratze-errentarekin, 2013an ikuskapen-jardueraren ildoak sartu da, honako termino hauetan:

III. Ikuskapenaren oinarritzko ildoak, gizarteratze-errentako laguntzak emateko irizpideen homogeneotasunari buruzkoa.

Helburua:

Laguntza hori emateko hainbat espediente aztertuko dira, Oinarritzko Laguntzaren eta Gizarteratzearen Zerbitzuaren partaidetza eta laguntzarekin, laguntza tramitatu eta ematean aplikatutako irizpideen homogeneotasuna egiaztatzeko; horrela, aplikazio horretan zuzentasunik ez izateak sor ditzakeen arriskuak ahalik eta gehien gutxitu nahi dira.

Jarduketa publikoaren oinarritzko printzipioetako bat zuzentasunarena da, gizarteratze-errentarekin lotutako ikuskapen-jarduketaren helburuan aipatzen den bezala.

Ikuskapen-ildo honi dagozkion jarduketak abuztutik egiten ari dira, eta aurreikusita dago urriko bigarren hamabostaldirako amaitzea.

Errenta kentzeko kasuen prebalentzia eskasa dela eta, egokia eta beharrezkoa iruditu zaigu emate-prozesuko homogeneotasuna eta zuzentasuna analizatzea.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko irailaren 30ean

Gizarte Politiketako kontseilaria: Íñigo Alli Martínez

## Galdera, 2012ko zerga-presioaren adierazleari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Manu Ayerdi Olaizola jaunak 2012ko zerga-presioaren adierazleari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko irailaren 16ko 101. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko urriaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### ERANTZUNA

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du 2012ko zerga-presioaren adierazleari buruz (PES-121). Hauxe erantzun dio Nafarroako Gobernuko Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilariak:

Zergen eta tasen batura kalkulatzeko, horixe baita aipatutako adierazlearen zenbakitzailea, diru-sarrerren aurrekontuko 1. eta 2. kapituluetak eskubide likidatuak hartu dira kontuan (zuzeneko eta zeharkako zergak), bai eta tasa fiskalei dagokiena ere, horiek diru-sarrerren 3. kapituluako atal bat baitira (zehazki, 30. artikulua da). Kopuru horiek Kontuen Laburpen Orokorren 54., 55. eta 57. orrialdeetan daude, bai eta webgunean jasotako Diru-sarrerren Sailkapen Ekonomikoaren zerrendan ere.

Zuzeneko zergak (1. kapitulua):	1.420.530.254,90 euro
Zeharkako zergak (2. kapitulua):	1.515.379.503,92 euro
Tasa fiskalak (30. artikulua):	13.128.207,41 euro
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.949.037.966,23 euro</b>

Kopuru horiek desberdintasun txiki batzuk badituzte hasiera batean argitaratutakoekiko, batez ere 2. kapituluako diru-sarrerrei dagokienez, baina egindako akatsa jada zuzendu egin zen, webgunean argitara emandako akats zuzenketa bitartez. Akats zuzenketa hori 2013ko irailaren 30ean jakinarazi zitzaion Nafarroako Parlamentuari.

Magnitude horren eta Nafarroako biztanle kopuruaren arteko zatiketa eginda (644.566 euro, 2012. urterako), biztanle bakoitzeko zerga-presioaren adierazlea ateratzen da; zerga-presio hori 4.575 eurokoa da, eta ez 4.576 eurokoa, galderaren testuan agertzen den bezala.

Hala eta guztiz ere, ez da ahaztu behar parlamentari jaunak eskatutako datuaren ondo-ondoan beste datu oso adierazgarri bat ere badagoela: doktrinaren kanon ohikoaren arabera kalkulaturako zerga-presioaren datua; hau da, tributu-kontzeptuengatik diru-bilketaren guztizko zenbatekoa zati barne produktu gordina egitea eta datua ehunekotan ematea.

Espainiako Erregio-kontabilitatetik ateratzen den barne produktu gordina erreferentziatzen hartuz gero –datu hori Estatistikako Institutu Nazionalak ematen du, 2008. urtekoa oinarritzat hartuta–, ikusiko dugu Nafarroako 2011ko barne produktu gordina 18.459.302.000 eurokoa izan zela eta 2012koa, berriz, 18.126.132.000 eurokoa. Horrenbestez, egiazko zerga-presioa (hau da, diru-bilketa errealearen terminoetan gertatzen dena) % 16,08koa izan zen 2011n eta % 16,27koa, berriz, 2012an.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko urriaren 4an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu



## **Galdera, Audenasa sozietatearen akzioen erosketa dela-eta entitate desberdinekin hartutako zorrari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Manu Ayerdi Olaizola jaunak egindako galderaren erantzuna, Audenasa sozietatearen akzioen erosketa dela-eta entitate desberdinekin hartutako zorrari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko irailaren 16ko 101. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko urriaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Audenasa sozietatearen akzioen erosketa dela-eta entitate desberdinekin hartutako zorrari buruz (PES-122). Hauxe erantzun dio Nafarroako Gobernuko Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak:

Madrilgo notario Augusto Gómez-Martinho Faerna jaunaren aurrean 1984ko uztailaren 5ean

egiletsitako salerosketako eskritura publikoko hamalagarren klausulan –klausula horrek tresna publiko bereko hamahirugarren klausularako igorpena egiten du– ezartzen da akzioen prezioa ordainduko dela “egun indarra duen kontzesioepea amaitzen deneko urte naturalaren barruan, hau da, bi mila eta hamalauan (2014), epe hori amaitu aurreko egunean”.

1973ko abuztuaren 10eko eskritura publikoan ageri den bezala –eskritura horren bidez gauzatu zen autobidearen kontzesio kontratua–, kontzesioepea 2014ko ekainaren 8an amaituko da.

Azkenik, adierazi beharra dago aipatutako prezioaren ordainketak ez duelako inongo baldintza edo mugarik.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko irailaren 30ean

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

## **Galdera, Nafarroako Gobernuak uztailaren 12ko 9/2013 Errege Dekretuaren gainean duen iritziari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Nafarroako Gobernuak uztailaren 12ko 9/2013 Errege Dekretuaren gainean duen iritziari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko irailaren 16ko 101. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko urriaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak

idatziz erantzuteko galdera egin du uztailaren 12ko 9/2013 Errege Lege-dekretuari buruz (PES-126). Hauxe erantzun dio Nafarroako Gobernuko Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak:

Nafarroako Gobernuak aztertu du Industria, Energia eta Berrikuntza Zuzendaritza Nagusiak emandako txostena, non ondorioztatzen baita konstituzio-akatsak egon daitezkeela Sistema elektrikoaren finantza-egonkortasuna bermatzeko presako neurriari buruzko uztailaren 12ko 9/2013 Errege Lege-dekretuko 1. artikuluko bigarren eta hirugarren idatz-zatietan, lehenengo xedapen gehigarrian, hirugarren xedapen iragankorrean eta azken xedapenetatik bigarrean, Espainiako Konstituzioko 9.3 eta 86.1 artikulua urratzeagatik.

Hori dela eta, 2013ko irailaren 25eko Erabakiaz, Nafarroako Gobernuak erabaki du hasiera ematea aipatutako errege lege-dekretuaren aurkako konstituziokontraketarako errekurtsoa aurkezteko prozedurari, zeren eta jotzen baitu horixe dela biderik egokiena Nafarroan dauden energia berriztagarrien instalazioetako bideragarritasun ekonomikoari eusteko eta 2020. urteari begirako Nafarroaren III. Energia Planean jasotako helburuak lortzeko.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko urriaren 4an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

## **Galdera, Nafarroako Gobrenuko Departamentuetako aurrekontuaren 2013ko abenduaren 31ko betetze-aurreikuspenari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Nafarroako Gobrenuko Departamentuetako aurrekontuaren 2013ko abenduaren 31ko betetze-aurreikuspenari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko irailaren 9ko 96. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko urriaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Gobernuko departamentuetako aurrekontuaren 2013ko abenduaren 31rako betetze-aurreikuspenari buruz (8-13/PES-114, PES-115, PES-116, PES-117, PES-118, PES-119 eta PES-120). Hauxe erantzun dio Nafarroako Gobernuko bigarren lehendakariorde, eledun eta Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetarako kontseilariak: 2013ko aurrekontu-betetzearen egoera

jasota dago Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuak Parlamentuari igortzen dizkion hiru hileko txostenetan, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legeko 59. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz.

Halaber, Nafarroako Gobernuaren webgunean hilerro informazioa argitaratzen da urteko aurrekontuko gastuei eta diru-sarrereri buruz. Aurrekontu-betetzearen gaineko txostenak egiteko, itxitako kontabilitate-sistematik lortutako txostenak erabiltzen dira, behin koadratze-egiaztapenak egin ondoren.

[http://www.navarra.es/home\\_es/Gobierno+de+Navarra/Accion+del+Gobierno/Presupuesto+y+gasto+Publico/Informacion+mesual+de+ejecucion+presupuestaria/](http://www.navarra.es/home_es/Gobierno+de+Navarra/Accion+del+Gobierno/Presupuesto+y+gasto+Publico/Informacion+mesual+de+ejecucion+presupuestaria/) 2013ko abenduaren 31rako aurreikusi da betetako gastuaren guztizkoa egiazki bildutako diru-sarreraren arabera egokitzea.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2003ko urrian.

Bigarren lehendakariorde, eledun eta Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

## **Galdera, Nafarroako Kirol Justiziarako Batzordearen jarduketei buruzkoa, CD Cabanillas taldeak aurkeztutako salaketa dela-eta.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Amaya Zarranz Errea andreak egindako galderaren erantzuna, Nafarroako Kirol Justiziarako Batzordearen jarduketei buruzkoa, CD Cabanillas taldeak aurkeztutako salaketa dela-eta, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko irailaren 16ko 101. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko urriaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Amaya Zarranz Erreak idatziz erantzuteko galdera egin eta informazioa eskatu du Nafarroako Kirol Justiziarako Batzordearen jarduketei buruz, CD Cabanillas taldeak aurkeztutako salaketa dela-eta (8-13/PES-00124 eta 8-13/PEI 318). Hauxe erantzun dio Gizarte Politiketako kontseilariak:

Hitzez hitz aipatzen dugu Nafarroako Kirolari buruzko Foru Legeak (uztailaren 5eko 15/2001

Foru Legea) IX. tituluko I. kapituluko 125. artikuluan dioena:

1. Nafarroako Kirol Justiziako Batzordea Foru Komunitatean kirol justiziaren arloko gorengo organoa da.

2. Nafarroako Kirol Justiziako Batzordea Foru Komunitateko kirol administrazioari atxikia egonen da organikoki baina zeharo beregain arituko da bere eginkizunetan eta bere eskumenpeko gaietan berak erabakiko du, administrazioako azken instantzia gisa.

Hori guztia dela eta, ulertzen dugu batzorde horrekin lotutako gai guztiak zuzenean Nafarroako Kirol Justiziako Batzordeari berari zuzenean eskatu behar zaizkiola. Batzorde hori Arrieta kaleko 25. zenbakian dago. Beti bezala, zure esku jartzen naiz kasuari buruz behar diren argitasun guztiak emateko.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko urriaren 7an

Gizarte Politiketako kontseilaria: Íñigo Alli Martínez

## **Galdera, uztailaren 12ko 9/2013 Errege Dekretuak hurrengo bost urteetako diru-bilketan izanen duen eraginari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, uztailaren 12ko 9/2013 Errege Dekretuak hurrengo bost urteetako diru-bilketan izanen duen eraginari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko irailaren 16ko 101. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko urriaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du uztailaren 12ko 9/2013 Errege Dekretuak hurrengo bost urteetarako diru-bilketan izanen duen eraginari buruz (PES-125). Hauxe erantzun dio Nafarroako Gobernuko Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguako kontseilariak:

Sistema elektrikoaren finantza-egonkortasuna bermatzeko presako neurriei buruzko uztailaren

12ko 9/2013 Errege Lege-dekretuak azken xedapenetatik bosgarrenean Zerga Bereziei buruzko abenduaren 29ko 38/1992 Legea aldatzen du, zehazki 84. artikulua (zerga-tasak), 85. artikulua (zergaren eragina) eta 87. artikulua (arau-hausteak eta zehapenak), guztiak ere lkatzaren gaineko Zerga Bereziaren gainekoak.

Estatuko eta Nafarroako administrazioen ordezkarien artean izenpetutako Hitzarmen Ekonomiko indarduneko 35.3 artikulua ezartzen du aipatutako zerga Nafarroak ordainaraziko duela.

Egindako galderari erantzunez, ez da aurreikusi Nafarroako Foru Komunitateak inongo diru-bilketarik egitea ikatzaren gaineko zerga berezia dela eta, foru parlamentariak aipatutako denboran, zeren eta ez baita aurreikusi hura aurkeztu eta ordaintzera derrigortutako inongo subjektu pasiborik egotea.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko urriaren 8an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguako kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu